Miguel Mari Juanikotena Hita basean lanean aritutako garaian.

Miguel Mari Juanikotena Hita en los tiempos que trabajaba en la base.

Josetxo Martínez bietan, eta Daniel Orradre, bertako langileak

Josetxo Martínez en las dos, y Daniel Orradre trabajadores de la base.

AMERIKANOAK BAZTANEN - II

AMERIKAKO ESTATU BATUAK ELIZONDOTIK GERTU

Kontrol eta alerta-egoerako basearen eraikuntzarekin batera, Baztanera ailegatuko dira ordura arte gerra pelikuletan soilik ikusten ziren moduko induskatze makinak eta bulldozer-ak, eta orobat , autobusak, jeep-ak eta militar dotoreziaz eta "ausardiaz" jantzitako pertsonak (mahuka motzeko kamisetak, poltsikoz jositako prakak), bertakoendako imajina ezinak zirenak garai haietan. Amerikarren basea, atez barna, Amerikako hiri bat da bere osotasunean, dena da amerikanoa eta dena dago pentsatua bertako bizilagunak "etxean baleude bezala" sentitzeko.

Halakoa zen Gorramendikoa. Zinema zuten (zentsurarik gabekoa eta 24 orduz), kafetegia, beti zabalik ziren jatetxeak, kapera eta erlijio zerbitzua, liburutegia, bolera, billarrak, makina txanponjaleak, den-dena way of life amerikar erara, eta zerbait faltan bazen Torrejonera edota Zaragozara eskatu, eta hurrengo egunean (helikopteroz) bertan zegoen. Basearen barneko txanpon bakarra dolarra zen.

Bertako bizilagunendako shock-a ikaragarria izan zen, hala ere inoiz ez zen liskar handirik sortu eta egokitzea eta "bertakotzea" azkarra izan zen. Gehienak gazteak eta irekiak ziren eta agudo lagunak aurkitu zituzten (batzuk eskualdeko neskekin ezkondu ziren); soldadu profesionalak ziren eta bertan amestu ere ez ziren soldatak zituztenak. Dozenaka soldadu amerikano kotxe ikusgarrietan Elizondora jaisten ziren (Irun edota Hondarribira ere), bere ordu libreez gozatzera, eta herriak bizitza eta pertsona mugimendu izugarria ezagutu zuen.

Terrazak okupatzen zituzten, etengabe garagardoa, coca-cola edo "cubalibre"-a edaten zuten; beti tabako horia erretzen zuten; txiklea mamurtzen zuten, haurren artean ere banatzen zuten; Giltxaurdiko zelaian beisbolera jokatzen zuten, baita amerikar errugbira ere ; argazki makinak zituzten, transistoreak, hondatu orduko botatzen zituzten erlojuak, eta bertan eskura ezinak ziren diskoak, musika ekipoak edo grabadorak ere ekartzen zituzten. Dena pelikulakoa zen edo zirudien: Amerikako Estatu Batuak Elizondotik 22 kilometrora.

LOS AMERICANOS EN BAZTAN

LOS ESTADOS UNIDOS A UN PASO DE ELIZONDO

Con la construcción de la Base de Alerta y Control, pronto llegó a Baztan una maquinaria espectacular sólo conocida por las películas de hazañas bélicas, excavadoras y bulldozers, autobuses, jeeps y personal vestido con cierta elegancia militar y con un desenfado (camisetas de manga corta, pantalones con un montón de bolsillos) que aquí era impensable. Una base americana es, de puertas adentro, enteramente una ciudad americana, todo es americano y todo está dispuesto para que sus habitantes se sientan "como en casa".

Y la de Gorramendi era así. Había cine (24 horas cada 24 y sin censura), cafetería y restaurante siempre abiertos, capilla y servicio religioso, librería, bolera, billares, tragaperras, tabaco, todo al más exacto way of life americano, y si algo faltaba se encargaba a Torrejón o Zaragoza y al día siguiente (en helicóptero) estaba aquí. Y en el interior de la base, la moneda circulante, única y exclusivamente, era el dólar.

El shock para la población local fue tremendo, aunque nunca hubo mayores conflictos y la adaptación y "asimilación" fue rápida. La mayoría eran jóvenes y abiertos que pronto hicieron amistades (varios se casaron con chicas de la comarca), soldados profesionales y con unos sueldos que ni se soñaban aquí. Bajaban a Elizondo (o a Hondarribia o Irun) decenas de soldados americanos a vivir sus horas libres, con unos coches impresionantes y el pueblo vivió una actividad y un movimiento humano inusitados.

Ocupaban las terrazas, bebían continuamente cerveza, coca-cola o cubalibre, fumaban siempre tabaco rubio, mascaban chicle que repartían entre los niños, jugaban a beisbol o rugby americano en el campo de Giltxaurdi, tenían cámaras fotográficas, transistores, relojes que tiraban si se les estropeaban, traían discos y equipos de música o grabadoras aquí imposibles de conseguir. Todo era o parecía de película: los Estados Unidos a 22 kilómetros de Elizondo.

Bertan soldaduska egin zutenen artean batzuen eginkizuna basearen inguruak zaintzea zen. Esagunak dira José Tomás Sanzberro eta José Javier Otondo.

Entre los soldados que tuvieron que realizar la mili en la base, cuya misión era de vigilancia del perímetro, se reconoce a José Tomás Sanzberro y José Javier Otondo.

Espainiako aireko armadaren soldadu talde bat.

Grupo de soldados del ejército del aire.

Casinoan ospakizun batean ageri dira bertakoak eta amerikarrak

En una celebración en el Casino puede verse a autóctonos y a americanos.

Gigi, Harvey eta Leon Hondarrabiko taberna batean. Bertan bizi ziren amerikarrak baina basean lanean aritzen zirenak.

Gigi, Harvey y Leon en una terraza de Hondarrabia. Los americanos que trabajaban en la base vivían allí.

Arizkundarrek prozesiarekin; kontutan izanik gerra hotza garaian liskar bat piztekotan arrisku gune nagusian bizi zirela.

Los habitantes de Arizkun en procesión, dado que durante la guerra fría, de surgir un conflicto armado, la zona era de alta peligrosidad.

Más platillos volantes

Elizondo. (Navarra), 25. — Ha sido visto un platillo volante en la zona del valle de Baztan y su capital, Elizondo. Aproximadamente a las 21 horas, un objeto redondo, muy luminoso y que despedía chispas, atravesó Elizondo a enorme velocidad. Volaba en dirección noreste-sudoeste, punto éste por donde desapareció después de realizar unas raras evoluciones. El ingenio en cuestión evolucionaba a una altura algo menor que la de los aviones y era de gran tamaño. Lo que más ha llamado la atención es su extraordinaria luminosidad y su paso totalmente silencioso. — Cifra.

La Vanguardia 1968-9-26 egunkariko albistea OVNI ikuskatuen ingurukoa.

La Vanguardia 26-9-1968 noticia sobre avistamiento de OVNI.



Basearen hondakinak.

Derribo de la base.

ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS
Archivo Capuchinos Pamplona fondo Lekaroz
Fondo Mena
Jauregia familia
Begoña Durruty
Zubietako Salsa etxekoak
Lekarozko ikasleen eta langileen familien argazkiak
Fondo de Patrimonio Institución Príncipe de Viana
Fondo Ballarena

TRADUCCIONES / ITZULPENAK:
Jon Gorrotxategi
Iñaki Arrese
Ana González
Ainhoa Picabea
Maitane Marimorena

AUTORES / EGILEAK:
Iker Frías
Fernando Mendiola
Lander Santamaría

COORDINADORES - AUTORES / KOORDINATZAILEAK - EGILEAK:
Juainas Paul Arzak
Mikel Rodríguez
Mikel Ozkoidi

2012 CONTIGO AVANZAMOS | Gobierno de Navarra